

2012 → ate irekiak jardunaldiak. Arteleku. Ekainak 26tik – uztailak 4ra



Erakusketa | Performancea | Proiektzioak | Tailerrak | kontzertuak
Jun 26, 2012 - Jul 04, 2012

Ate irekiak jardunaldiak. Arteleku. Ekainak 26- uztailak 4

Ibaia zenbat eta gehiago hazi, orduan eta aukera gehiago urak jaioberritzeko. Artelekuren kasuan, galdu ditugu osagai fisiko batzuk, baina ez artearentzat leku hain berezi honetan berebiziko garrantzia duen giza bertute bat: elkarlana. Erakusketak gainezka bete ditu, sotiltasun saiatu batez, are Urumea harrotu hark hartu ez zituen txokoak. Era guztietako arte estiloak zabalduz: margoa, grabatua, plastika, bideoa, dantza, instalazioak, performancea, ehun diseinua... Uraldi asaldatua bere onera etorrira, nabarmen antzematen da ARTELEKU BIZIRIK DAGOELA, zeren eta naturaren ezbehar batengatik ez baita Artelekun biltzen den energia ahituko, neurriz aldatu baizik; neurri maitatuago baterantz.

Ramuntcho Robles Quevedo

Horregatik Artelekuko artistek bertara gerturatzea gonbidatzen zaituztegu gurekin esperientzi hau bizitzeko. Eta nahi izanez gero parte hartzeko ere!

Ikusi, entzun, pentsatu, sentitu eta elkarrekin sortu.

Erakusketa Kolektiboa

Ekainaren 26 tik uztailaren 4ra.

Inagurazioa: Ekainak 29, 19:00etan

Laszczak, Benedetta Orsoli, Isabel Herguera, Alejandra Torrado, Ibón Mainar, Elba Martínez, Colectivo YOX, Dantzaz Konpania, Gabriela Muñagorri, Ebi Soria, Kopulakrapula, Chuneta Sánchez-Agustino, Oier Villar, Jaime De Los Ríos, Izaskun Lapaza, Sofie Dubs, Juan Albin, Audiolab, SOSAS, Gato, Mixel González, Borja Arratibel, Cristina Sanchez, Inaki Rifaterra, Ivan Gómez, Bitamine, Silvia Balatsar, Miren González, Esther Camacho, Tytti Thusberg, Javier Alcibar, Rosa Parma, Ricardo Iriarte, Miguel Elizalde, Diego Matximbarrena, LuixT.ran-ädn, Daniela Francin, Elena Silvestre, LeTitare, Ali de Bali...

%Ädn Fanzine desde 1980 + Oier Villar + GÛmez bideo proiektzioak

Ekintzen programa

EKAINAK 26

18:30-20:00

SOS COLLECTIVE PERFORMANCEA

EKAINAK 27

17:00-19:30

BBOYING/BREAK DANCE TAILERRA. *Ander Etxebeste*

Bboying “The freshest Kids”(V.O) historioari buruzko dokumentalaren emanaldia eta klase praktikoa.

Informazio gehiago eta izen ematea: anderetxebestearrieta@gmail.com

18:00-20:30

JAM CONTACT IMPROBISAZIOA. *Sofie Dubs*

Informazio gehiago eta izen ematea: sofiie@yahoo.fr

EKAINAK 28

17:00- 20:00

TALLER DE FOTOGRAFÍA. *Naroa Perez*

Hiru orduko argazki lantegi intentsiboa. Landuko diren gaiak: Argia hartzea, laborategia, eta liluratzen gaituzten argazkiak.

Informazio gehiago eta izen ematea: naroaphotofabrik@yahoo.es

EKAINAK 29

17:30

SARRITSASOA. *Dantzaz Konpainia*

Joseba SARRIONANDIaren olerkietan iradokitua

Koreografoa: Josu Mujika

Musika: Javier Muguruza, Ken Zazpi, Kortatu, Mikel Laboa, Ruper Ordorika,

Dantzariak: Ane Anza, Igor Baroja, Emmanuel Dobby, Nuria Gimenez, Anna

Jirmanová, Patricia Langa, Hugo Mercier, Guillermo Millán, Daniel Navarro, Marina Scotto.

Lekeitioko Kale-Antzerki Nazioarteko Jaialdiarekin batera ekoiztua

[Gehiago irakurri: Sarritsasoa: dantza proposamena aire zabalean](#)

18:00

PROSA EN SINTE

Joxe Caballero ren *Tiempo y Eco*, liburuaren aurkezpen poetiko-soinuduna.

19:00

AGURRA. *Asier Zabaleta*

Agurra-ren edo auresku-aren ikuspegi garaikidea; Iada ez dauden oroigarri bezala ulertuta, gu baino lehenago joan zirena; bizitzako ibaiak eraman zituenena. Utzi zuten hondarratik.

2012 → ate irekiak jardunaldiak. Arteleku. Ekainak 26tik – uztailak 4ra

19:30

KATARSIS. *Ebi Soria, Benedetta Orsoli, Dantzaz Konpainia*

Elkarren aurka egiten duten bi subjektuk adierazia, izakiak berezkoa duen dikotomia bat aurkezten dugu. Horren inguruan, elementuek elkarri eragiten diote, eta aldaketa bat bultzatu, sorkuntza berri bat, katarsi bat (hondamendia), eboluziorantz.

Aurkakotasuna gutariko bakoitzean eta gutaz kanpo bizi da. Protagonismo aldaketa: subjektuen ordeztu, indar kontrolaezinak, zeintzuek subjektua beste egoera baterantz altxatzen duten, protagonismoa galarazteraino (kontzientzia aldaketa).

Lehen begi-kolpean gardena den espazio batean, dantza erabiltzen da indar katartiko eta asaldatzaile gisa, zeinak espazio hori espazio beraren antitesi itxuraldatu dezakeen, geroago espazio horrek berak bere bilakaera izan dezan. Bide-proiekzioek katalizatzaile lana egiten dute espazioaren eta giza elementuen artean (Performers), eta elementu horien elkarreraginari esker errealitate desberdinak sortzen dira, beren berezko bilakaeraren mende dauden errealitateak, hain zuzen.

EKAINAK 30

17:00 -18:30

DANCEHALL MASTERCLASS TAILERRA. *Raquel Koroma*

Jamaikar Reggae-an oinarritutako hiriko dantza honetara hastapena.

Informazio gehiago eta izen ematea: raquelkoroma@hotmail.com

19:30

MODELINES. PERFORMANCE PASARELA. *Benedetta Orsoli y Alejandra*

Torrado

Gorputza euskarritzat hartzen duten bi disziplina artistikoren elkarketa performatiboa.

20:00- 22:30

KONTZERTUAK

Alex Garmendia

Elbis Revers

Línea táctica

Fribrotik

UZTAILAK 1

16:30-18:30

BIDEODANTZA PROIEKZIOA. *Sofie Dubs*

Bideo dantzaren ibilbidea 80. hamarkadatik gaur arte jasotzen duen bildumaren proiektzioa.

19:00

FOCCUS PERFORMANCEA *Josune Razkin, Sofie Dubs, Ebi Soria, Jasone Alba.*

FOCCUS proiektua JOSEBISO kolektiboak egindako lan baten emaitza da. Proiektu horretan parte hartzen dute dantzari-performer neska batek, filosofo neska batek (ekonomialari eta soziologoa da, baita ere) eta performer musikari eta ikus-

2012 → ate irekiak jardunaldiak. Arteleku. Ekainak 26tik – uztailak 4ra

entzunezkoen teknikari mutil batek.

JOSEBISO kolektiboak FOCUS piezaren bidez proposatzen du errizomaren logika eramatea gizartera, diziplina askotako performance baten bidez.

Auzia da, batetik, errizomaren kontzeptu filosofikoa performance batean agertzea (kontzeptu hori Gilles Deleuzek eta Felix Guattarik landu zuten beren garaian, Kapitalismoa eta eskizofrenia: milaka goi-laudata liburuan) eta, bestetik, kontzeptu hori azaltzea, testuaz gain, beste hizkuntza batzuen bidez; esate baterako, dantzaren, eszenografiaren, musikaren eta publikoarekiko harremanen bidez.

UZTAILAK 3

17:00-18:30

JAZZ FUNK TAILERRA. *Raquel Koroma*

Informazio gehiago eta izen ematea: raquelkoroma@hotmail.com

UZTAILAK 4

10:00-12:00

MUGIMENDUA ETA SORKUNTZA TAILERRA. *Izaskun Lapaza*

Artelekuko ingurutik jasotako sentsazio ezberdinetatik abiatuz, mugimenduzko konposizio bat osatuko dugu.

Informazio gehiago eta izen ematea: izaslapaza@yahoo.es

16:00- 19:00

ZUNTZA TAILERRA: haur & helduak. *Virginia Ameztoy*

Tailer honetan Nuno-felt teknika landuko da, zeinetan feltroa eta ehun naturalak, kotoia, zeta... erabiltzen diren.

Informazio gehiago eta izen ematea: virginia.ameztoy@gmail.com.

Jornadas de puertas abiertas. Arteleku. Del 26 al 4 de julio

La crecida de un río acrecienta las posibilidades de renacer de las aguas. En el caso de ARTELEKU, aunque se haya perdido parte del material físico, no se ha perdido la cualidad humana más importante en un lugar tan singular para el arte: la colaboración.

La exposición inunda con persistente sutileza incluso las zonas donde no llego el recrecido Urumea. Exponentes de todos los estilos artísticos: plástica, video, danza, instalaciones, performance, diseño textil...

Redirigidas las turbulentas aguas, es palpable y evidente que ARTELEKU ESTÁ VIVO, dado que la energía que en él confluye no se agosta por un mero accidente natural sino que cambia de dimensión ; a una dimensión más querida.

Ramuntcho Robles Quevedo.

2012→ ate irekiak jardunaldiak. Arteleku. Ekainak 26tik – uztailak 4ra

Los artistas de Arteleku os invitamos a que os acerqueis a vivir y participar en esta experiencia con nosotros.

Ver, escuchar, sentir, pensar y compartir.